

ARROPA BIRMOLDATU

Jarduera

Material eta teknika desberdinak erabiliz, gure arropari ukitu desberdin bat ematen ikasteko tailerra.

Deskribapena

Arropa pertsonalizatzea eta ukitu desberdin bat ematea izango da kurtso honen helburua. Horretarako, teknika eta aukera desberdinak landuko dira eta, honela, arroparen bitartez norberaren pertsonalitatea islatzeko aukera izango dute gazteek. Bitxiak, osagarriak, telak eta abar bezalako materialak eta josteko edota hauek txertatzeko teknika desberdinak erabiliko dituzte beraien arropa birmoldatu ahal izateko.

Helburuak

- Norberaren jantziak birmoldatzea
- Teknika desberdinak ikastea
- Sormena eta irudimena lantzea
- Elkarlana sustatzea
- Parte-hartze herrikoirako guneak sustatzea

Nori zuzendua

Gazteak.

Ikasleak eraman beharreko materiala

Oinarrizko materialak zentroak jarriko ditu baina ikasle bakoitzak bere proiektua burutzeko behar duen berariazko materiala eramango du.